AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1684

266/2013 EBAZPENA, otsailaren 22koa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, José Luis González Iglesias jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Antolakuntza eta Sistemetako zuzendariordearen kargutik kentzeko dena.

AURREKARIAK

Artikulu bakarra.– Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen irailaren 7ko 1136/2011 ebazpenaren bidez, José Luis González Iglesias jauna Antolakuntza eta Sistemetako zuzendariorde izendatu zen aipatutako ospitalean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.– Aintzat hartuta Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– José Luis González Iglesias jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Antolakuntza eta Sistemetako zuzendariordearen kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Pertsonal zuzendariari, eta Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariari jakinaraztea.

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, idazki hau jasotzen denetik hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluek ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2013ko otsailaren 22a.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.